

**2002KO EKAINAREN 14AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamalaua.

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta bira

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Patxi Plazaola Muguruza
Jose Antonio Guirado Tristan
Ana Isabel Asla Egialde
Pello Garaialde Goikoetxea
Jon Berbel Aiestaran
Josi Insausti Mujika
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Aimar Larrea Garin
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge

ETORRI GABEAK: Arantza Aseginolaza Azkargorta
Leire Lopez Zurutuza
Jorge Juan Outeiral Fernandez

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTAK

2002ko apirilaren 18ko eta 2002ko maiatzaren 2ko akten berri eman ondoren, aho batez onartu dira beraiekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ARAU SUBSIDIARIOAK:

a- Arau Subsidiarioetako 2. HAren eta 36. HAren aldaketak eta 41. HA sortzeari buruz irizpideak eta irtenbideak onartzea.

Alkate jaunak Patxi Plazaola, hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio:

“Puntu honetan bi gai daude. Alde batetik, Bernedo-eneko inguruko arearen aldaketa. Aurrerakina jendurrean jarri da eta ez da inolako alegaziorik aurkeztu. Horren ondorioz, irizpideak eta irtenbideak eta hasierako onespina emateko proposamena dator. Beste aldetik proposamenean ere 1. HA azaltzen da, Esteban Lasa eta Jose Migel Iturriotz kaleen artean dagoen plaza jabari publikora pasatzeko. Baina puntu honetaz zehazki ez zen aurrerakinik egin eta Bernedo-eneko aldaketarekin batera sartzea pentsatzen genuen, baina Foru Aldunditik esan digute, hobe dela, 1. HArekiko Aurrekariak izapidetzea. Bestela bi prozesuak nahasteko arriskua egongo litzateke.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 2. Hirigintza Arearen eta 36. Hirigintza Arearen aldaketa eta 41. Hirigintza Area sortzeko Aurrekinari buruz 2002ko apirilaren 9an hirigintza-batzordeak egindako proposamenaren ondorioz, Planeamenduko Erregelamenduaren 125. artikulua dioena betez, aipatutako dokumentua jendurrean jarri zen 30 eguneko epean eta 2002ko apirilaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2002ko apirilaren 12ko Euskaldunon Egunkarian eta 2002ko apirilaren 16ko El Diario Vascon iragarkiak argitaratu ziren.

Legez ezarritako epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, Planeamenduko Erregelamenduaren 125,3 artikulua xedatutakoa betez, Udalbatzari, gehiengo absolutuarekin onartu beharreko (ELOLEren 47,3i artikulua), ondorengo proposamena egiten zaio:

Lehenik. Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 2. Hirigintza Arearen eta 36. Hirigintza Arearen aldaketa lantzeko eta 41. Hirigintza Area sortzeko behar diren irizpide eta irtenbideak onartzea.

Bigarren. Erabaki honen berri idazle-ekipoari ematea, hasierako onespenerako dokumentua presta dezan.”

b- Arau Subsidiarioen 2. HAren eta 36. HAren aldaketari eta 41. HA sortzeari buruz hasierako onespena ematea.

Bozketa eginda, aho batez, ondorengo erabakia hartu da:

“AURREKARIAK

Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 2. HAren eta 36. HAren aldaketa lantzeko eta 41. HA sortzeko behar diren irizpide eta irtenbideak onartzeko proposamena Udalbatza Osoari egin zaio eta onartu egin ditu.

Horren ondorioz eta Planeamenduko Erregelamenduaren 125. eta ondorengo artikuluek diotenaren arabera, Udalbatzari ondorengo akordio-proposamena egiten zaio:

Lehenik. Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 2. HAren eta 36. HAren aldaketari eta 41. HA sortzeari hasierako onespena ematea, dokumentuak onartutako irizpideak eta irtenbideak jasotzen dituelako.

Bigarren. Espedientea jendaurrean hilabeteko epean jartzea, iragarkiak GAOn, Euskaldunon Egunkarian eta El Diario Vascon argitaratuz, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Aldi berean, aho batez onartu da 1. HAren Aurrerakina jendaurrean jartzea.

3.- LEHIAKETAREN ESLEIPENA

Beasaingo udalerrian bide-garbiketa mekanizatuaren zerbitzu publikoa eta antzeko beste zerbitzu batzuk kontratatzeko lehiaketaren esleipena.

Alkate jaunak, Pello Garaialde Zerbitzu-batzordeburuari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

Lehenik. Beasaingo udalerrian bide-garbiketa mekanizatuaren zerbitzu publikoa eta antzeko beste batzuk **SERBITZU ELKARTEA S. L.** enpresari **esleitzea** proposatzen da, 2000ko apirilaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari

Ofizialean argitaratutako lehiaketa-deialdian puntuazio hobereana lortu duen enpresa delako. Litzitazioa bi enpresa aurkeztu ziren, hau da, CESPА eta SERBITZU ELKARTEA S. L. Eskaintzak aztertu ondoren, bakoitzak lortutako puntuazioa, baldintza ekonomiko-administratibo pleguaren 14. artikuluan jasotako adjudikazio-irizpideen arabera, ondorengo da:

	Kalitatea	Prezioa	Baliabide mat.	Aukerako zerbitzuak	Guztira
SERBITZU ELKARTEA S. L.	30	35	8	6	79
CESPA	21	35	8	8	72

Adjudikazioa, baldintza ekonomiko-administratibo eta teknikoen pleguen arabera egin da. Adjudikazio-prezioa honako hau da: HIRUREHUN ETA BEDERATZI MILA, BOSTEHUN ETA HOGEITA ZORTZI EURO ETA BERROGEITA HAMASEI ZENTIMO (309.528,56 €) BEZ barne. Kontratuaren egikaritze-epea zortzi urtekoa izango da.

Bigarren. Baldintza teknikoen pleguan deskribatutako aukerako zerbitzuak ez adjudikatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Guk gure aldetik erabakia onartuko dugu, prozedura ondo eraman delako. Dena dela elkarriketa batzuk izan ditugu, garbiketa-lanetan dabiltzan eta enpresa batzordekoak diren langile batzuekin eta beren kezka azaldu dizkigute, aurretik esperientzia txarrak egon direlako. Guk eskatzen duguna zera da, enpresaren gainean egoteko kontratazioko baldintza guztiak bete ditzaten.”

Pello Garaialde jaunak (EA): “Me parece bien la puntualización que se hace. Una de las cosas que hemos valorado es la remuneración de los trabajadores. Aunque CEPСА, dentro de su plantilla ofrecía una persona y media más, en el cuadro de niveles retributivos se constata que para una misma categoría, la retribución anual de CESPА es de 12.800 € contra 23.261 € que ofrece SERBITZU ELKARTEA. Se puede decir que en esta empresa ganan casi el doble. Hemos valorado también este tipo de aspectos, porque no queríamos que nos pasara como en otros municipios. Indudablemente tiene

que haber un seguimiento, pero como ya se dijo anteriormente, siempre estamos a tiempo de denunciar el contrato si no prestan el servicio como es debido.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “El malestar era más bien por situaciones irregulares, tales como el estar trabajando sin contrato ni alta en la seguridad social y el hecho de que hay que saber adaptar los medios técnicos a la realidad de cada una de las calles.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Con Garbile hemos tenido la posibilidad de prorrogar el servicio y si no hemos querido prorrogar ha sido precisamente porque la situación era insostenible.”

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Gai honi buruz aurreko Udalbatza Osoaren Bilkuran gure jarrera azaldu genuen. Orduan esan genuen bezala, gure kezka, hainbeste denborarako kontratazioa egitea zen, aurreko esperientzia ikusita. Hori kontuan izanik eta hainbat langileren kezkak jaso ondoren, eta prozedura zalantzan jarri gabe, ontzat ematen dugulako, gure jarrera abstentzioarena izango da.”

Pello Garaialde jaunak (EA): “Nik uste dut bi gauza aipatu behar direla. Alde batetik, epea zortzi urtekoa izatea eta horren arrazoia makinaren amortizazioarena da eta beste alde batetik, mekanizazioaren alde egiten dugu apustua. Guk pertsonal guztia mantentzen dugu, baina langileriak beste gauza batzuk nahi ditu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, zerbitzu-batzordetik datorren proposamena bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (Batasuna)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin zerbitzu-batzordearen proposamena onartu da.

4.- GOIEKI. 2001. urteko balantzea eta galera eta irabazien kontuak onartzeko proposamena.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da: “GOIEKIKO 2001. ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Irabazi eta Galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioari dagokiona onartzea.”

5.- GKE. Gobernuz kanpoko erakundeei dirulaguntzak adjudikatzeari buruzko proposamena.

Alkate jaunak, Ana Asla gizarte-ongizate batzordeburuari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

“Lehenik. Finantzaketa-oinarrietan agertzen diren hautaketarako irizpideen arabera, ondorengo Gobernuz Kanpoko Erakundeei laguntza ematea, jarraian aipatzen diren diru-kopuruekin:

GKE: MISIONES DIOCESANAS (DONOSTIA).

EGITASMOA: NOSSA S^a DAS GRAÇAS GIZARTE-ETXEA. IDAZKARITZA-
IKASKETAK.

HERRIALDEA: ANGOLA (AFRIKA).

EMATEKO DIRU-KOPURUA: 6.761,39 €

GKE: TAUPADAK (GIPUZKOA).

EGITASMOA: BATXILERRAK OHIANEAN

HERRIALDEA: BOLIVIA.

EMATEKO DIRU-KOPURUA: 4.741,5 €

GKE: MUGEN GAINETIK (DONOSTIA).

EGITASMOA: TECOLUCA HERRIAN EMAKUME NEKAZARIENTZAT
ABELTZAINZTA-PRODUKZIOA

HERRIALDEA: EL SALVADOR.

EMATEKO DIRU-KOPURUA: 9.881 €

GKE: HONEK (GIPUZKOA).

EGITASMOA: "LOS QUINCHOS" HAURREN BABES ETA ARRETARAKO
ZENTROA.

HERRIALDEA: NIKARAGUA.

EMATEKO DIRU-KOPURUA: 17.552,27 €

GKE: UNICEF (GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA).

EGITASMOA: AFGANISTANEKO EMAKUME ETA HAURRENTZAKO
LARRIALDI ETA LARRIALDI ONDORENGO GIZATASUN ALDEKO
LAGUNTZA-PROGRAMA. ESKOLARA ITZULTZEKO KANPAINA

HERRIALDEA: AFGANISTAN

EMATEKO DIRU-KOPURUA: 15.025 €

GKE: ELAN-EUSKADI (GIPUZKOA).

EGITASMOA: “EL SACRAMENTO KOMUNITATEAREN INGURUNEAREN SANEAMENDUA, JINOTEGAN. NIKARAGUA”

HERRIALDEA: NIKARAGUA.

EMATEKO DIRU-KOPURUA: 5.147,47 €

GKE: CARITAS (GIPUZKOA).

EGITASMOA: HONA-KO (ERITREA) HERRITARREI EDATEKO URAREN HORNIKUNTZA

HERRIALDEA: ERITREA

EMATEKO DIRU-KOPURUA: 14.170,21 €

Bigarren. Herrialdeen Garapenerako Laguntzen kontu-sailak duen kopurua, 101.541,55 €koa da; kopuru horretatik, aipatutako erakundeei guztira 73.278,34 € ematen zaie eta aldea, hau da, 28.263,21 €, gazte bolondresentzako diru-laguntzak bultzatzeko eta larrialdietarako nahiz sentiberatze-programak aurrera eramateko banatuko dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

6.- BEKAK. Garatze bidean ari diren herrialdeetan lankidetzan arituko diren gazteentzat laguntzak emateko proposamena.

Alkate jaunak, Ana Asla gizarte-ongizate batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“**Lehenik.** Garatze bidean ari diren herrialdeetan lankidetzan arituko diren gazteentzako laguntzak adjudikatzea, ondoren aipatzen diren pertsona eta gobernuz kanpoko erakundeek aurkeztutako proiektuak garatzeko:

<u>GAZTEAK</u>	<u>PROIEKTUA</u> <u>HERRIALDEA</u>	<u>GKE</u>	<u>ORDEZKOAK</u>
JONE MATEOS ARRUABARRENA	BOLIVIA	TAUPADAK	Ordezkorik ez dago

LEIRE IRASTORZA URBIZU	BOLIVIA	TAUPADAK	Ordezkorik dago	ez
ROBERTO ALONSO MARTINEZ	NIKARAGUA? EKUADOR ? URUGUA!?	HONEK ? EDEX ?	Ordezkorik dago	ez
MIKEL ALBISU LASA	NIKARAGUA?	HONEK ? ELAN EUSKADI? –	Ordezkorik dago	ez
LIERNI ORMAZABAL INSAUSTI	EL SALVADOR	MUGEN GAINETIK	Ordezkorik dago	ez

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

7.- HITZARMENA. Oinarrizko gizarte-zerbitzuak emateko Gizartekintzarekin sinatu beharreko hitzarmenaren onespena.

Alkate jaunak, Ana Asla gizarte-ongizate batzordeburuari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

“Hitzarmen honen bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Beasaingo Udalaren arteko lankidetzaz bermatu nahi dugu. Gipuzkoako herritar guztiek gizarte-zerbitzu bat edukitzeko eskubidea izan dezaten, programetan sartuko diren pertsonen behar bezala erantzuteko eta era berean gizarte-zerbitzuen sistema hobeto kudeatzeko. Hemen aipatzen dira, zehaztasun osoz hainbat artikulu, baina agian bat aipatzekotan zazpigarrena aipatuko nuke. Hau da:

“Oro har administrazio bakoitzak bere eskumeneko programa, prestazio eta zerbitzuak hartuko ditu bere gain, bizitza autonomoa egiteko gai direnak udalaren ardurapean egongo direlarik eta ezinduak, berriz, Foru Aldundiaren ardurapean.”

Programetan sartuta dauden pertsonen ekarpena ezartzeko, irizpide berdinak egongo dira Gipuzkoako Lurralde Historiko osorako, udalen artean

ahalik eta alderik txikiena egon dadin. Irizpide horiek Gizarte Zerbitzuen Mapan zehaztuko dira.”

Los sistemas públicos de protección tropiezan con graves dificultades para superar sus inercias de funcionamiento y adaptarse con rapidez, flexibilidad y eficacia a los cambios que experimenta la sociedad y a los nuevos requerimientos que se derivan de estas transformaciones. Surgen entonces etapas de crisis caracterizadas por la aparición de desajustes y disfunciones entre los recursos que se ofrecen, los compromisos adquiridos y las necesidades sociales. Hay un Decreto del Gobierno Vasco del año pasado sobre ordenación competencial de los servicios sociales y que establece las responsabilidades propias del Gobierno Vasco, de las Diputaciones Forales y Ayuntamientos, de tal manera que la adopción por todos de un mapa de servicios sociales permite definir los objetivos de atención del sistema y las responsabilidades de cada cual en su consecución. Las propuestas inicialmente trabajadas por Gizartekintza, departamento de servicios sociales, han sido presentadas tanto al conjunto de los servicios técnicos de los Ayuntamientos como al conjunto de alcaldes y concejales/as del Territorio y discutidas y trabajadas durante los seis meses precedentes.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritziz hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak bere adostasuna azaldu du proposamenarekiko.

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Dudarik ez dago hitzarmen hau gizarte-ongizate arloan sinatu behar den garrantzitsuenetakoa dela. Orokorrean ondo dago, baina hainbat tokitan 2001. urtea aipatzen du eta 2002. urtean gaude. Aldi berean ordu-kopuru batzuk ere jasotzen dira eta ez dakit horiek eguneratuta dauden.”

Ana Asla andreak (EAJ/PNV-EA): “2001. urtea erreferentzi moduan hartu da, baina Foru Aldundiak ordainduko ditu ematen diren ordu guztiak. Ez dago mugatuta.

Horrezaz gain, iaz ikusi genituen beste arazo batzuk, horregatik guk atzeratu egin dugu hitzarmen honen onespina. Adibidez, sakontzen programa. Sakontzen programa erabiltzen da pertsona bat autonomoa den edo menpekotasuna duen erabakitzeko. Horrekin ez geunden ados eta haiek ere badakite zer egin eta egiten ari dena da, Kanadan eramaten den beste sistema batekin erkatu. Nik uste horren arabera, irizpideak aldatuko dituztela. Badaude pertsona batzuk oso ondo definituta daudenak, hau da, autonomoak direnak, menpekotasuna dutenak edo menpekotasun handia dutenak, baina beste batzuk mugan daude eta guretzat dirulaguntza jasotzeko garaian, garrantzi handia du zein mailatan kokatzen den jakiteak”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Lo que si parece es que en este convenio se resuelve un problema que era endémico, esto es, en la financiación para personas dependientes y grandes dependientes, tanto en mixtas como en asistidas es igual: Antes no lo era y constituía un problema porque en las mixtas, que es lo que tenemos aquí, en realidad era igual que los dependientes estén aquí o en una asistida porque el servicio es el mismo y sin embargo la financiación era diferente. Pero ahora esto se iguala.”

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Gure ustez, orain bertan irtenbide egokia izan liteke, baina epe luzera Udalak dituen eskumenen murrizketa suposa dezake. Arrisku hori ikusita edo, pentsatzen dugu herrian eman behar den horrelako zuzeneko zerbitzuarentzat, egokiago dela herriko erakundeak kudeaketa egitea. Beraz, gure ustez, epe luzerako irizpide zuzenarekin egina ez dagoelako, abstenitu egingo gara.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Hitzarmen honek konpromiso batzuk hitzartzen ditu. Honen atzean legea dago eta horrek adierazten du erakunde bakoitzaren eskumenak nola gelditzen diren. Lege horren aplikazioa, hitzarmen honen aplikazioa baino gogorragoa izango litzateke.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “El hecho de que el municipio gestione este tipo de materias está bien, pero sólo hasta un cierto nivel, ya que hay problemas que no se pueden resolver a nivel municipal, como son los de plazas en residencias, ya que por ejemplo en Beasain necesitaríamos más de las que tenemos en Beasain. Existen también otro tipo de situaciones como son las de las familias desprotegidas, adopción de niños, sida, drogas, etc. que son difíciles de resolver a nivel local. Se trata de negociar cuál es la mejor manera de gestionar estos temas, ya que en definitiva se trata de dinero público.”

Una honetan, Andoni Antxia batzar aretotik irten egin da.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (Batasuna)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da oinarrizko gizarte-zerbitzuak emateko Gizartekintzarekin sinatu beharreko hitzarmenaren edukia eta Alkate jaunari baimena eman zaio hitzarmen hori sinatzeko.

Andoni Antxia jauna berriro ere batzar-aretora sartu da.

8- ORDENANTZA. Udal-tasetan laguntzak emateko ordenantzaren aldaketari hasierako onespena ematea.

Alkate jaunak, Ana Asla gizarte-ongizate batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“Ordenantza honen helburua zera da: udalerriko giza talderik behartsuenentzat ohiko etxebizitzako ur-, estolderi eta zabor-tasek sortzen duten karga ekonomikoa murrizteko edota deuseztatzeko balioko duen laguntzen udal-politika garatu eta gauzatzea. Guk nahi duguna da prozedura erraztea. Ordenantza onartuta dagoenez, epea irekitzen da eskaerak aurkezteko. Ordenantzan proposatzen dugun aldaketa honako hau da:

“3. artikulua:

“Laguntza hauek jasotzeko, ezinbesteko baldintza izango da ondorengo diru-sarrerak izatea... ordainagiriko zenbatekoaren % 50 lortzeko” esaten duen tokian, ondorengo esan behar du "Urtero eskaerak aurkezteko epea irekitzeko akordioarekin batera, laguntza hauek jasotzeko diru-sarreraren baremoa ezarriko da.

"Elkarrekin bizi direnen unitatean bi pertsona bizi baldin badira.... pertsona bakoitzaren pentsio horren % 50 deskontatuko da" esaten duen tokian, ondorengo esan behar du "Elkarrekin bizi direnen unitatean bi pertsona elkarrekin bizi baldin badira, une bakoitzean dagoen zergapetu gabeko pentsioaren % 75 deskontatuko da beren diru-sarreretatik. Hiru pertsona edo gehiago balira, 3.arena eta ondorengoena, pertsona bakoitzeko zergapetu gabeko pentsioaren % 50 deskontatuko da".

6. artikulua

“Eskaerak aurkezteko epea urtero jakinaraziko da. Aurtengo eskaerak aurkezteko epea, irailaren 3tik 28ra, biak barne, izango da. Ezarritako epez kanpo egindako eskaera oro, baztertua izango da.”, esaten duen tokian, ondorengo esan behar du: “Eskaerak aurkezteko epea urtero jakinaraziko da. Ezarritako epez kanpo egindako eskaera oro, baztertua izango da.”

Bestalde, Udaleko tasen arloan laguntzak eskatzeko epea, 2002ko irailaren 9tik urriaren 4ra, biak barne, izatea proposatzen dugu.

Aldi beran, 2001ean ur-, zabor- eta estolderi kontzeptuengatik ordaindutako ordainagiritako kopuruak berreskuratzeko diru-sarreraren baremoa ondorengo izatea proposatzen dugu:

- Hileko 404,72 euro arte, ordainagiriko zenbateko guztia lortzeko.
- Hileko 404,73 eurotik 529,25 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren % 75 lortzeko.
- Hileko 529,26 eurotik 653,78 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren % 50 lortzeko.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Udal-tasetan laguntzak emateko ordenantzaren aipatutako aldaketei hasierako onespina ematea.

Bigarren. Espedientea jendaurrean jartzea 30 eguneko epean alegazioak aurkezteko.

Hirugarren. Laguntzak eskatzeko proposatu den epea eta diru-sarreraren baremoa onartzea.

9.- MOZIOAK

a- EAJ-EA, PSE-EE eta PPK aurkeztutako demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola jaunari hitza eman eta honek adierazpen zibikoa irakurri du:

““Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa.

Eudel, 2002ko maiatzaren 3a

Demokrazia eta hiritarrak inon estu-estuki elkarrekin bizi badira, Udaletxeetan gertatzen da halakoa; horrez gain, Udaletxeetan ere hiritarren parte hartzeko bidezko eskaera beste inon baino zuzenago hartzen da aintzat. Beraz, Udaletxeak sistema demokratikoaren eraikin osoa sostengatzen duten oinarriko zutabeak dira. Udaletxeen demokraziaren kalitatea degradatuz gero, sistema osoak horren eragina jasoko du.

Alkate eta Zinegotziek, udalerrri bakoitzaren herri-borondatearen legezko ordezkariak izateaz gain, guztion onuraren alde jarritako hiritarren balore zintzoenak adierazten dituzte. Haien hiritarren ongizatearen alde aritzeko kasurik gehienetan sakrifizio handiak egin behar izan dituzte, bai pertsona, bai familia bai lanbide aldetik. Zentzu horretan, gizalege altruista eta herriaren eta herrirako gobernu den demokraziaren balorerik jatorrenetarikoen adierazgarriak dira.

Hori dela eta, udal arloko eguneroko kezkez gaindi, hiritar askoren egoera larriak, horien artean ETArek ekintza terroristek mehatxatu, kolpatu eta eraildako geure kideenak –batez ere Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularrekoei dagokienez-, eta ideia politiko demokratikoen defentsarako adierazpen-askatasunak jasandako erasoek, demokrazia eta askatasunaren aldeko erantzun irmo eta solidarioa eskatzen digute, baita euskal gizartearen aniztasunarekiko begirunearen aldekoa ere.

Errealitate honetaz jabetuz, joan den otsailaren 22an Ajuria-Enean izandako Alderdi Politiko eta Erakunde Publikoen ordezkarien arteko bileran, udal esparruan demokrazia eta askatasunaren defentsarako konpromisoen garapena geure erakunde honen esku utzi izan zen, baita aniztasunarekiko begirune eta mehatxatutako pertsonetikiko defentsa eta elkartasun mailako ekimenak ere, ahalik eta inplikazio politiko eta sozial handiena bilatuz. Hori guztia horretarako propio sortutako Segurtasun-Batzordeak –bertan Alderdi Politikoei ere parte hartuz- bultzatzen diharduen erabakiekin koordinaturik.

Une honetako larritasunaz jabeturik, geure Udaletxe guztietan udal-demokraziarekin hartutako konpromisoa finkotasunez berriztu behar dugulakoan gaude, gauza bera eginez Alkate, Zinegotzi eta mehatxatutako pertsonen askatasun, osotasun eta segurtasunei nahiz terrorismoaren biktima guztiei dagokienez.

Hori dela eta, adierazpen hau izenpetu dugun euskal alderdi politiko eta udal ordezkariok jendaurrean berretsi nahi dugu nork bere erantzukizun-eremuan lan egingo dugula Demokrazia eta Askatasuna eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatu eta defendarazteko. Egin ere, ondoko printzipioen arabera egingo dugu.

Printzipioak

- 1.- Gizon-emakumeen oinarrizko eskubideak errespetatu eta defendatzea da herritarren eta Herrien antolamendu eta bizikidetzarako oinarria.
- 2.- Politikoki justifika ezinak dira, bai eta etikoki gaitzesgarriak ere, pertsonen hilketak helburu duten indarkeria ekintzak.
- 3.- Giza-Eskubideen Deklarazio Unibertsala berretsi egiten dugu, Bizitzarako Eskubidea horien arteko aurrenekoa izanik, eskubide hori agertu ezean ezin baita bestelakorik gauzatu. Adierazpen horri eutsiz, ezin da inor torturatu, txarto tratatu, iraindu edo mehatxatu, ez eta jazarri edo eraso ere, dituen ideiak direla-eta edo ideia horiek jendaurrean demokratikoki ordezkatu eta defendatzearen.

Horregatik, bizitza, askatasun eta demokraziaren aurka- eta hortaz, giza-eskubide guztien aurka- doazen ETaren ekintza terroristak gaitzetsi egiten ditugu.

- 4.- Euskal gizartean dagoen ideia, egitasmo eta sentimendu aniztasuna aberasgarri da kultura, politika nahiz gizartearentzat. Horrenbestez, babestu eta errespetatu egin behar da, eta, horretarako, gizarte hori osatzen duten kide guztien askatasuna defendatu behar da, beti ere, bortzarik gabe adieraz ditzaten beren asmo pertsonal eta politikoak, bidezkoak guztiak ere.
- 5.- Gizarte demokratiko batean, egitasmo politiko demokratiko oro defendatu, garatu eta, hala badagokio, gauzatu behar da, baldin eta herritarren gehiengoaren babesa badauka. Beti ere, errespetatu egin behar da, baldintza berdintasunean, aukera politiko desberdinen ordezkariak askea eta defentsa eraginkorra. Xede horrekin, Zuzenbide Estatu bateko arau demokratikoek eta politikak dituzten mekanismoak baino ez dira erabiliko borondate kolektiboa eratzeko.

6. Aniztasun politikoa eraginkortasunez eta modu kontsekuentean errespetatzea, beraz, nahitaezkoa da, gure herrietan guztiok elkarrekin biziko bagara.

Konpromisoak

Printzipio horietan oinarrituta, alderdi politikoek eta euskal alkate eta zinegotziek gure borondatea adierazten dugu:

- 1.- **Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal akordioa** onartzea. Helburu hori lortzeko behar diren neurri ekonomiko, arau-emaile, politiko eta sozialak jasoko ditu akordioak, eta, era berean, euskal gizartea era aktiboan inplikatu du akordioaren garapenean.

Udal akordio horretan ondoko konpromisoak jasoko ditugu:

- Bizitzarako eskubidea defendatzeak duela lehentasuna berrestea, horixe baita bizikidetzarako oinarritzko printzipioa.
- Gizon-emakume guztien oinarritzko eskubideak errespetatu eta errespetaraztea.
- Zuzenbide Estatua -demokraziaren oinarritzko elementua den aldetik- eta beronen erakundeak defendatzea, horiek baitira herritarren borondate demokratikoaren isla.
- Egitasmo politikoak lortzeko, indarkeria bortxa gisa erabiltzeari beren beregi uko egiten dieten egitasmo politiko guztien bidezotasuna eta legezkotasun demokratikoa defendatzea.
- ETari exijitzea errespetatzea dezan euskal gizartearen borondatea eta behin betiko utz dezan indarkeria.
- Elkartasun aktibo eta aintzatespen etiko, sozial eta materialeko ekimenak garatu, indarkeria, intolerantzia eta giza eskubideen nahiz eskubide zibiko eta politikoen haustea jasan dutenen eta jasaten dutenen alde. Are gehiago, baita judizialki ere, Korporazio gisa, norbaitek mota honetako edozein estortsio jasaten duenean.
- Herritar guztien eskubideak zaindu eta defendatzea eraso, urratu edo baldintzatu nahi dituztenen aurrean, eraturako udal gobernuaren ezaugarriak edo udalerrri bakoitzean dauden indarrak gorabehera.

- Herritarren parte-hartze eta ordezkaritza politikorako eskubideak askatasunez erabiltzea udal esparruan, beti ere, aukera politiko bidezko eta demokratiko guztien aniztasuna errespetatuz eta, elkartasunez, beraien lan publikoa bermatuz, izan daitezkeen legez kanpoko ekintza, mehatxu, larderia edo erasoen aurrean.

2.- Toki esparruan demokrazia eta askatasunaren aldeko printzipioak eta aniztasunaren eta giza eskubideen errespeturako printzipioak zabaltzea, politika eta gizartearen inplikazio ahalik eta handiena bilatuz ezarpen praktikoa eraginkortasunez gauzatzeko, udalez udal eta herriz herri.

Ondorio horietarako, **udalek demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko toki foroa** sustatuko dute. Foroa zabalik egongo da herritarrek eta elkarteek parte har dezaten, eta aldizka bilduko da herri bakoitzeko sentsibilitate sozial eta politiko desberdinen arteko elkarrizketa eta topaketa gunea sustatzeko, sentsibilitate horiek honako adierazpen zibikoan azaldutako printzipio eta konpromisoekin eraginkortasunez konprometituak direlarik

- Ideia demokratikoak direla-eta mehatxatuta edo errepresaliaturik dauden pertsona edo erakundeei babes sozial eta instituzionala ematea ahalbidetuko duten ekimenak garatuko ditu;
- Demokrazia eta askatasuna eta herrian dauden aukera politikoen aniztasunarekiko begirunea errespetaraziko du.

3.- Edozein akordio politiko lortzekotan, demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoan azaltzen diren printzipio eta konpromisoak modu eraginkorrez onartu eta defendatzea, ezinbesteko oinarri politikoa delakoan gaude.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “El no haber suscrito esta declaración un grupo político como Batasuna, quiere decir que os posicionais donde siempre habeis estado cómodos, al lado de los terroristas de ETA. Por mucho que habléis de democracia y paz, nunca lo practicais, lo que practicais es la coacción, el insulto y siempre que esteis unos cuantos, porque solos nada. Al no condenar los atentados de vuestros amigos los terroristas de ETA, os poneis a su altura, porque como sois sus cómplices políticos, todo lo que hagan os parece bien. Si continuais por este camino es posible que acabeis como ellos.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Kasu honetan Eudeleko mozioari akats bat bilatzekotan, luzeegia dela esango nuke, baina gu mozioaren alde gaude. Honetaz nik gauza bat esna nahi nuke. Bazen ordua horrelako zerbait egiteko. Urte gehiegi daramagu horrelako historiekin, baina

nik uste dut hau dela lehenengo aldia, Euskadiko indar politiko guztien artean, Batasuna ezik, akordio bat lortzen dena. Oinarriak jartzen dira edozein eginkizun politiko egiterakoan. Zentzu horretan garrantzia handia ematen diot mozio honi eta uste dut bilakaera bat izan behar duela. “

En todos los Ayuntamientos excepto en los que gobierna Batasuna, se aceptan los mínimos a partir de los cuales todos los grupos políticos nos comprometemos a actuar. Este acuerdo debe tener evolución y no ser solamente una moción. Nosotros vamos a proponer que en todas aquellas decisiones que tome el Ayuntamiento, incluyendo toda la política de subvenciones que el Ayuntamiento vaya a plantear, que o bien el acuerdo en sí tal como está redactado se plantee a todas las sociedades a todos los entes y a todas las organizaciones del pueblo para que a su vez lo asuman como tales y en consecuencia, el Ayuntamiento también exija como requisito mínimo necesario para cualquier ente, organización, sociedad, etc. que quiera tener relación con él, asuma los mínimos éticos necesarios para la convivencia en este pueblo. Eso será la propuesta que en todo caso nosotros plantearemos más adelante. Nosotros vamos a apoyar la moción.”

Andoni Antxia jaunak (Batasuna) : “Hemen mozio moduan aurkezten den erantzuna, gai-zerrendako MOZIOAK puntuaren barruan c puntua izango litzateke. Esan diren gezurrak egiaztatu egin behar dira. Ez da lehenengo aldia alderdi guztien adostasuna lortzen dena eta bestela ikusi Ajuria-eneko paktua. Orduan ere adostasuna berdina izan zen eta aztertu zein emaitza eman zituen. Orain haren errepikapenarekin gabiltza. Adostasunak ere hemen lortu dira beste alor batzuetan. Adibidez Lizarra-Garazi inguruan. Baldintza etiko minimo batzuk errekonozitzen diren adostasun batzuetan, alderdi nazionalisten akordioa egon zen. Betiko gauzak bueltan ibiltzea bada, betikotan jarraituko dugu. Baina gauza berriak badaude, ikus bestela orain dela gutxi IDAHON egin zen deklarazioa. Ikusiko dugu zein mugimendu datorren hortik eta bestela ez ahaztu Irlandako gatazkaren korapiloa nola eten zen. Bukatzeko esan mozio honen aurrean gure jarrera aurkakoa izango dela.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Gure aldetik ere esan, bazela garaia egoera honetara iristeko. Guk osotasunean printzipio hauek defendatzen ditugu eta osotasunean hartzen ditugu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 3 (Batasuna)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, baiezko botoen kopurua ezezkoena baino handiagoa izanik, gehiengo absolutuarekin onartu da demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa.

b- Batasunak aurkeztutako mozioa, Batasunaren aurka burutzen ari den operazio polizialari buruzkoa.

Alkate jaunak, Andoni Antxia jaunari eman dio hitza eta honek mozioa irakurri du:

“Euskal Herriaren aurkako beste eraso baten aurrean gaude oraingo honetan ere. Beste behin, indarkeriari aurre egitearen aitzakiarean, Euskal Herriari zor zaizkion eskubideen aldeko borrokan egunerokotasunean ari den Batasuna indar politikoa izan da kolpatua.

Atxiloketak eta espainiar Lege Antiterroristaren aplikazioa (honek esan nahi duen tratatu txar, tortura, jazarpen, guztiarekin) da, Euskal Herria eraikitze konpromisoa publiko egin berri duen indar politikoaren aurka erabiltzen duten tresna.

Demokrazia, lau urtean behin bozka ematea baino askoz gehiago dela argi izanik, eta herri honi zor zaion benetako demokraziaren alde borrokan ari den Batasunak, kideen atxiloketak, egoitzen miaketak, kideen eta beraien ondasunen aurkako jazarpena... eta beste hainbat eraso pairatzen jarraitzen du. Batasunaren jardun politikoa isilarazteko beste salaketa baten aurrean gaude egun hauetan.

Hori guztia, datozen asteetara begira aurreikusita dagoen ilegalizazioaren aurreko ekimen gisa kokatu behar da. Espainiar estatua, bitarteko administratibo, judizial eta legegile guztiak ari da erabiltzen, Aznarrek eta Zapaterok hartutako erabaki politikoa gauzatzeko, Demokraten mozorroa alde batera utzi eta espainiar estatuen batasunaren defentsan, beraien benetako izaera faxista agerian geratzen ari da.

Beti egin duten bezala, bitarteko guztiak ari da erabiltzen espainiar estatua Euskal Herriaren izateko eskubidea ukatzeko. Egoera honen aurrean isildu edo beste alde batera begiratzen dutenak (espainiar estatuko arduradunek erabiltzen dituzten aitzakiazko argudio judizialak edo antzerakoak erabiliz, PP-PSOE-ren erabaki politikoak gauzatzen ari direla argi dagoenean), ezinbestean, estatuek diseinaturiko ildoaren baitan pieza garrantzitsu bihurtzen dira.

Honen guztiaren aurrean Beasaingo Udaleko Batasunak, Osoko Udal Batzarrari honako puntu hauek aurkezten dizkio, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezzen.

1.- Jon Gorrotxategi, Rufi Etxeberria, Joseba Garmendia, Jaione Intxaurrea, Juani Lizaso, Idoia Arbelaitz, Agustin Rodriguez, Enrike Alaña, Patxi Bengoa, Jose Luis Franco eta Bixente Enekotegi euskal hiritarrak, baldintzarik gabe aske uzteko exijitzen du Udal honek.

2.- Udal honek bere kezka agertzen du, polizia espainiarraren eskuetan Lege Antiterroristapean dauden 11 euskal hiritar hauek egoeraren aurrean. Udal honek, atxilotuen egoerari jarraipen zehatza egiteko konpromezua hartzen du, Lege Antiterroristak atxilotuengan sortzen duen indefentsioa eta inpunitatea kontuan izanik.

3.- Udal honek, berriro ere, Euskal Herriaren aurkako eraso politiko polizial eta judicial bat bezala kokatzen du azken egunotako operazioa. Euskal Herriaren bizitzeko eskubidea iraunkorki urratzen ari diren espainiar eta frantziar estatuek eta beraien arduradun politikoek, gerra eta sufrimendua beste irtenbideri ez dutela nahi uzten du argi gertaera honek.

4.- Berriro ere, Euskal Herria herri bat dela kontuan izanik eta autodeterminazio eskubidearen aitortzatik abiatuz, eskubide guztiak euskal herritar guztientzat Euskal Herri guztian errespetatuzetik etorriko dela benetako demokrazia eta bakea aldarrikatzen du udal honek. Bide horretan hitzetatik ekintzetarako pausuak emateko konpromisoa hartzen du udal honek.

5.- Udal honek, atxiloketa hauen aurrean protesta egiteko, Kontzentrazio batetara dei egiten die herritarrei.

6.- Erabaki honen berri, herritarrei, Europako Parlamentuko Lehendakariari, Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Batzordeari, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Presentáis una moción sobre los derechos de Euskal Herria, sobre la verdadera democracia, persecución contra vuestros militantes, libertad para algunos detenidos, etc. ¿todavía no os habeis enterado o no os queréis enterar que vivimos en democracia?, y ¿que todos los grupos menos vosotros la practicamos?. Vivimos en un estado de derecho y hay que defenderlo. Es básico para la democracia. A la justicia hay que dejarla actuar libremente. Si tenéis personas detenidas por algo será. La justicia analiza cada caso democráticamente. Sobre persecución, ¿no os da vergüenza hablar sobre

este tema?. Os queréis pasar por los buenos de la película, cuando lo que está llevando ETA sobre muchas personas de este país, bueno, ETA, kale-borroka, etc. ya está bien de vuestra ironía.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Mozio hau eztabaidatzen ez nintzateke sartuko. Mozioa nahiko zaharra da, apirilekoa baita, nahiz eta orain aurkeztu eta betiko letaniarekin gaude. Hemen demokrazia, giza eskubideak eta betiko historiak aipatzen dira, baina bakarrik Batasunakoak direnean aipatzen dira, besteenek, badirudi ez dutela balio gehiegirik. Besteei tokatzen zaienean ez duzue solidaritaterik azaltzen. Guk ez dugu mozio hau onartuko.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Guk, nahiz eta orain dela hilabete eta erdiko kontua izan, aurkako mozio bat aurkezten dugu, hau da:

“EAJ-PNV ETA EA-ren MOZIOA

Entzutegi Nazionaleko epailea den Baltasar Garzonek, Batasunako Mahai Nazionaleko 11 kideen kontra, tartean Jon Gorrotxategi beasaindarra, agindutako operazio polizialaren aurrean, Udalbatza honek honako hau adosten du:

- 1.- Aldez aurretik komunikabideetan iragarritako operazio politiko-judizial hau seriotasun eskasekotzat hartu, benetako froga kontrastatuetan oinarritu beharrean intuiziotan oinarritzen dela baitirudi.
- 2.- Operazio honek, gizarte-aniztasuna eta asoziazio-eskubide legitimoa erasotzen dituen Alderdien Legea onartzeko terreno politikoa prestatu duela kontsideratu.
- 3.- Normaltasun politikoaren, balio demokratikoen defentsaren, bizitza-eskubidearen eta pertsona guztien askatasunaren helburuak lortzeko honelako ekimenak desegokiak direla azaldu, helburu horiek lortzen lagundu beharrean, zailago egiten baitituzte.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP), aurkako mozioaren aurka azaldu da.

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros vamos a votar en contra de la moción porque en definitiva no estamos de acuerdo con lo que en conjunto expresa ni con la forma de hacerlo. Ultimamente se ha convertido en el deporte nacional de Euskadi el criticar al juez Garzón. Yo no voy a entrar en el análisis de sus actuaciones judiciales porque muchas son polémicas, otras

son cuestionadas, algunas de sus actuaciones son aprobadas por el Tribunal Supremo y otras han sido cuestionadas. Pero con esto también hay un doble juego. Resulta que el Garzón que persigue a Pinochet, el que pone en solfa el GAL, el que persigue a Galindo, el que pone los cómplices al Ministerio del Interior en la trama de guerra sucia del GAL, etc. era maravilloso y plausible. Pero cuando está persiguiendo a ETA y a todas las complicidades que puede tener, entre ellos miembros de Batasuna, que si no me equivoco, en estos momentos, hay 36 miembros de Batasuna en la cárcel con condenas serias, entoces se levantan las campanas al vuelo porque se atenta contra los derechos humanos. Mientras no hay un posicionamiento claro de desmarque por parte de Batasuna, con respecto a ETA, en principio no me voy a posicionar sobre las actuaciones judiciales que se sigan en este tema.”

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Denborak emango dio arrazoia bati edo besteari, baina dagoeneko, nahiz eta norberari bihotzak esan alde egon beharko lukeela, gure nolabaiteko defentsaren alde doalako aurka azaltzea, inolako printzipio etikorik ez izatea da. Gu mozio honen alde azalduko gara.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Nik konprenitzen ditut zuen sufrimenduak, baina horrek ez du esan nahi utzi egin behar ditugula gaizki ikusten ditugun besteak edo gure ustez behintzat bidezkoak ez direnak agertzen.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Gu Batasunak aurkeztu duen mozioaren aurka gaude.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV-EA, Batasuna)

Aurkako botoak: 4 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da EAJ-EAk aurkeztutako aurkako mozia.

c- Batasunak aurkeztutako mozia, Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoari buruz.

Alkate jaunak, Andoni Antxia jaunari hitza eman eta honek mozia irakurri du:

“Mendez mende Espainiak zein Frantziak, bortxakeriaz eta zapalkuntzaz, Euskal Herriari bere eskubide kolektiboak ukatu egin dizkiote. Euskal nortasuna

indarrez debekatua izan da eta euskaldunoi soilik espainiar edota frantziar gisa bizitzea onartu digute.

Euskaldunok bi estatu horien inposaketari aurre egin diagu, baina tamalez gure eskari zilegiak ere zapalduak izan dira eta herriaren borondateari uka egin zaia behin eta berriz.

Beraz, Euskal Herriari, herri baketsua izanik, bi estatuen indarkeriaren bitartez, menpekotasunaren egoera inposatu zaio, egoera antidemokratikoa alegia.

Inposaketa antidemokratiko honen aurka, altxatu diren euskaldunak asko izan dira eta dira. Belaunaldiz belaunaldi, euskal nortasunaren ukazioari eta errepresioari, armaz ere erantzun zaie, gatazka armatuak piztuz.

Gatazka armatua ez da sekulan izan herri honen aukera, espainiarrek bereziki hautatutako bidea baizik, Euskal Herriaren borondatea zapaltzeka eta isiltzeko asmoz.

Gauzak honela, gaur egun bizi dugun gatazka armatuaren egoera hau ez dago ulertzerik, gatazka politikoaren baitan ez bada kokatzen, honen ondorioa dela argi dagoelako, eta bakea lortzeko, gatazka politikoaren zergatiei heldu egin behar zaie ezinbestez: Euskal Herriaren eskubideak urratzen diren bitartean, bakerik ez dugu inolaz ere lortuko eta gure historian zehar hainbestetan bezala, konfrontazio armatua atzeratu besterik ez genuke egingo.

Honenbestez, udal honek ondoko hau erabakitzen du:

1. Pertsona orok bizitzarako, askatasunerako, integritate fisikorako,.... eskubidea du; tamalez, eskubide hauek urratuak izaten dira gatazka politikoak ematen direnean. Hau dela eta, Euskal Herriari, eragile politiko eta sozial guztion zeregina da hiritargoak bere eskubide zibil eta politiko guztiak egikaritu ahal izateko beharreko baldintzak sortzea, gogoan hartuta eskubide guzti-guztiek era global eta aldi berekoan onartuak eta : egikarituak izan behar dutela. Indarrean dagoen nazioarte mailako legediaren arabera, eskubideak egikarituak izateko dira eta ez dute ez ezberdintasunik, ez hierarkiarik ez eta inolako sailkapenik onartzen.
2. Euskal arazoa izenarekin ezagutzen duguna jatorri eta izaera politikoa duen gatazka historikoa da, bertan Estatu espainiarra eta frantsesak inplikaturik daudelarik. Beraz, konponketak ere derrigorrez politikoa izan beharko du.
3. Gatazka politikoaren sorrera eta mantentzeari buruzko ulermoldeak desberdinak izanik, beraz lurraldetasuna, erabaki-subjektua eta burujabetza

politikoan adierazten denez, aipaturikoak konpondu beharreko oinarrizko arazo gisa aurkezten zaizkigu.

4. Autodeterminazio eskubidea, giza eskubide oinarrizko eta kolektibotzat hartua, herri guztiei aitortu behar zaie. Munduko edozein herriri bezala, Euskal Herri osoari ere autodeterminazio eskubidea dagokio eta honen aitortza egitea dagokie Estatu espainolari eta . frantsesari, askatasun eta demokrazia ideietan oinarrituta dagoen heinean. Autodeterminazio eskubidea euskal demokrazia eraikitzeke oinarria da eta Euskal Herrian bakea lortzeko tresna da. Inongo Estaturik ezin da demokratikotzat jo baldin eta bere menpean hartzen dituen herriei askatasunez autodeterminatzeko eskubidea onartzen ez badie.
5. Elkarrizketa eta negoziazio prozesu irekiaren bitartez bakarrik gorpuztu daiteke gatazka politikoaren konponketa, inplikaturik dauden eragileak baztertu gabe eta euskal gizarte osoaren esku hartzearekin.
6. Negoziazioak osotasunezkoa izan behar du, hau da, arazoa osatzen duten eta bere ondorio diren kontu guztiak aztertuz eta erantzunak emanez. Horregatik, konponbidea erabakitzeko negoziazioak ez du inposaketarik izan behar; euskal gizartearen aniztasuna errespetatu behar da eta proiektu politiko guztiak erdiesteko baldintza berdinetan kokatu behar dira; Euskal Herrian demokrazia sakondu behar da -hau da, Euskal Herriaren etorkizuna nolakoa izango den herritarrek beren hitzaren bitartez adierazi behar dute- eta inplikaturik dauden Estatuak erabaki hori errespetatu behar dute. Euskal Herriak ,du hitza eta erabakia.
7. Euskal gatazka politikoari irtenbide politikoa eman behar zaio. Berriz, Estatu espainiar eta frantsesaren jarrerak Euskal Herriarekiko, eskubide demokratikoak errespetatu beharrean euskal hiritarren kontrako errepresioa erabiltzean datza: atxiloketak, torturak, presoan sakabanaketa, gerra zikina, eta abar.

Egun Espainiako Legedian indarrean dagoen "Lege Antiterrorista" delakoak pertsonen eskubideak ezabatzen ditu eta ez du Giza Eskubideen Komenio Europarrak zein Eskubideen Nazioarteko Itunak agintzen dutena errespetatzen. Horra hor tortura salaketak eta horien inguruan emandako epaileen erabakiak.

Hori dela eta udal honek zera eskatzen dio Gasteizko Jaurlaritzari : Ertzaintzak ez dezala legedi berezi hori erabili."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Otra moción. ¡Como si no tuviérais otra cosa que hacer!. De una santa vez haced algo positivo en la vida como partido político, mojaros en ello y decid a ETA que desaparezca, que deje de matar, que sobran. ¿Os dais cuenta que si eso ocurriese la paz tanto soñada sería posible, sería un hecho y que cada partido defendería sus ideas democráticamente y en libertad?. Mojaros por algo positivo, no andéis como siempre divagando. Votamos en contra.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Kasu honetan ere guk aurka bozkatuko dugu, baina zerbait aipatzekotan, uste dut edozein alderdi politikok eta Batasunak, noski, eskubide osoa duela independentziaren alde egoteko eta beste edozein alderdik bezala, bere planteamendu politikoak aurrera eramateko. Baina historia kontatzen duzuen bezala ematen du mendeetatik datorren gatazka dela. Nazioaren kontzeptua bera XIX. mendekoa da eta estatuaren errealitatea kontemporaneo. Baina zuek inoiz existitu ez den Euskal Herriaren historia muntatzen duzue, nolabait gero justifikaziorik ez duena justifikatzeko. Guk aurka bozkatu dugu.”

Arrate Izagirre andreak (Batasuna): “Jose Luis uste dut historiari buruz ezer ez dakizula.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Gure aldetik berriz irakurri, lehenengo mozioan onartutakoa, hau da, ratificamos la Declaración Universal de los Derechos Humanos, siendo el primero y el principal el derecho a la vida sin el cual ninguno de los otros puede ejercerse. De acuerdo a la misma, ninguna persona debe ser sometida a tortura, maltrato, vejación o amenaza, ni puede ser perseguida o agredida por sus ideas o por la representación y defensa democrática de las mismas. Por ello condenamos las acciones terroristas de ETA que atentan contra la vida, la libertad y la democracia y, por ende, contra todos los derechos humanos.

En el quinto punto decíamos: En una sociedad democrática, todos los proyectos políticos democráticos deben ser propugnados, desarrollados y, en su caso, materializados si cuentan con el respaldo mayoritario de la ciudadanía, desde el respeto a la posibilidad de la libre representación y la efectiva defensa de distintas opciones políticas, en igualdad de condiciones utilizando, única y exclusivamente, los mecanismos que la política y las reglas de juego democrático inherentes al Estado de Derecho tienen para conformar la voluntad colectiva.

Politika egitea puntu hauetan onartzen baduzue bat gatoz zuekin, baina politikan, indar armatuak erabiltzea sartzen baduzue, hortik kanpo gaude eta horren ondorioz, aurka.”

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Argudioak aipatzen direnean datuekin eta zehaztuz aipatu behar dira. Zuentzat orduan ¿Espainia noiz sortzen da, Don Pelayoren garaian, Errege Katolikoaren garaian, Fernando Séptimoren garaian, Konstituzio liberala eman zenean eta Francoren garaian?. Galdera horri erantzuten badiozue, guk esango dizuegu Euskal Herria noiztik zapaltzen ari zareten.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Espainiaren eraikitzaile garrantzitsuenak euskaldunak izan ziren. Nahiz eta ez gustatu eta ezkutatu egin nahi.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (Batasuna)

Aurkako botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aldeko botoen kopurua aurkakoena baino txikiagoa denez, ez da onartu Batasunak aurkeztutako mozioa.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da batik ere egin.

Eta tratatzeko beste gairik ezean bilera gaueko bederatziak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta ziurtatu dut.